

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE**CULTURA Y TURISMO**OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Herri Lan Departamentuak Abartzuzako zeharbidea hobetzeko obrak finantzatzeko 475.000 euro emango ditu

Alba kontseilariak eta herriko lehengo alkateak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten iragan ostiralean

Miércoles, 15 de junio de 2011

Laura Alba Cuadrado Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak eta Arturo San Martín Morrás Abartzuzako lehengo alkateak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten pasa den ostiralean herriko zeharbidea hobetzeko obretarako.

Hitzarmenean jasotzen den bezala, Herri Lan Departamentuak proiektua egiteko, eta obrak zuzendu eta burutzeko gastua finantzatzeko du; guztira 475.315 euro emango ditu.

Bestalde, udala obra burutzeko behar diren eskubideak eta ondasunak eskuratzeaz arduratuko da, eta horrek sortzen dituen gastuak ordainduko ditu; lanek kaltetutako zerbitzuak berriz jartzeaz ere arduratuko da. Zuzendaritza teknikoaren (Zaintza Zerbitzua gainbegiratuta) eta segurtasun eta osasunaren alorreko koordinazioaren ardura ere hartuko du.

Abartzuzako zeharbideko obren deskribapena

Abartzuzako zeharbidea hobetzeko proiektuaren lizitaziorako oinarrizko aurrekontua 1.241.121 euro da. Nafarroako Gobernuak 474.315 euro, Abartzuzako Udalak 478.232 euro eta Jurrmendiko Zerbitzuek 288.573 euro emango dituzte obra finantzatzeko.

Zeharbideak 551 metro izango ditu. Bi erreiko galtzadaren zorua berrituko da. Errei bakoitzak 3 m-ko zabalera izango du, 90 m-ko tarte batean izan ezik; tarte horretan 5 m zabal izango da erreia. Gainera, euri urak bilduko dira plantan banatutako hustubideen bidez, eta seinale bertikalak zein horizontalak jarriko dira.



Alba kontseilaria eta Abartzuzako lehengo alkatea, hitzarmena sinatzeko unean